**GALINDO HUA-KO ERREAKTORE BIOLOGIKOETAKO AIREA KONPRIMATZEKO INSTALAZIORAKO BI MOTOR ELEKTRIKOREN HORNIDURA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA. ESPEDIENTE-ZENBAKIA: 3214.**

| | |
|---|---|
| **Erregulazio harmonizatuko kontratua** | ☐BAI ☒EZ |
| **Espedientea izapidetzea** | ☒Ohikoa, ☐Urgentea, ☐ Larrialdia,<br>☐Aurreratua |
| **Mota** | ☒ Irekia<br>☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.)<br>☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.) |

| **A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA** | |
|---|---|
| **1.- Botere adjudikatzailea:** | Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia/<br>Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa |
| **2.- Kontratazio-organoa:** | ☐ Zuzendaritza Batzordea<br>☒ Presidentea<br>☐ Gerentea |
| **3.- Kontratuaren arduraduna:** | Javier Ruiz de la Hera |
| **4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:** | contratacion@consorciodeaguas.eus<br>Administrazio/teknika arloko kontsulta: 944 873 100 |
| **5.- Kontratatzailearen profila:** | https://www.consorciodeaguas.eus/eu/<br>https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/ |

**B.- KONTRATUAREN XEDEA**

**1.- Kontratuaren xedea**: **GALINDO HUA-KO ERREAKTORE BIOLOGIKOETAKO AIREA KONPRIMATZEKO INSTALAZIORAKO BI MOTOR ELEKTRIKOREN HORNIDURA**

**2.- Zer beharri erantzun behar zaien**: Galindoko HUAko erreaktore biologikoek aire-elikadura izan behar dute arazketa-prozesuko fase hori osatzen duten mikroorganismoen bizi-kondizioei eusteko. Aire-ekarpen hori lau turbopuzgailuren bidez lortzen da, bakoitza bere motorrarekin. Motorrak txandaka eta modu koordinatuan funtzionatzen du, eta prozesuak behar duen aire-emaria lortzen du. Gaur egun, 2. turbopuzgailuaren motorra matxuratuta dago, konpontzeko aukera ekonomikorik gabe, eta, beraz, motorrak hornitu beharra dago.

**3.- Loteka banatzea**: ☐ Bai ☒ Ez

**Loteka ez banatzearen justifikazioa**: Espediente hau loteka banatuz gero, espedientearen kudeaketa zaildu egingo litzateke edo are haren xedea ezingo litzateke lortu, ekipoak eta programazioak sinplifikatzea eta mantentzea murriztea direla eta.

**4.- CPV:**

CPV kodea:31110000-0
Deskribapena: Motor elektrikoak

**5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna**:

☐ BAI
☒ EZ

Onartzeko baldintzak eta aldaera edo alternatibarik izan lezaketen elementuak: Ez da aplikagarria

**6.- Izaera juridikoa**

☒Administratiboa ☐ Pribatua

| C.- KONTRATUAREN PREZIOA | |
|---|---|
| **1.- Lizitazio-aurrekontua**<br>(BEZik gabe) | **BERREHUN ETA HIRUROGEITA BI MILA BOSTEHUN (262.500,00) EURO** |
| **2.-Kontratuaren balio zenbatetsia**: 262.500,00 euro<br>Loteak:<br>☐ BAI<br>☒ EZ | |
| **3.- Prezioa zehazteko sistema**:<br>☐ Oroharreko prezioa<br>☒ Prezio unitarioak | |
| **4.- Urteko ordainketak eta aurrekontu-kontsignazioa**:<br><br>Kontratuaren aurrekontuko urteko ordainketak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa:<br><br>2026. urtea: 623.02.169.33 partida. 131.250,00 € (BEZik gabe)<br>2027. urtea: 623.02.169.33 partida. 131.250,00 € (BEZik gabe) | |
| **5.- Prezioen berrikuspena**:<br>☐ BAI<br>☒ EZ | |
| **6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin**:<br>☐ BAI ☒EZ | |
| **7.- Ordaintzeko modua**: Arrunta. Hileko ziurtagiria. | |
| **8.- Konturako ordainketak**: Ez. | |

| D.- KONTRATUAREN EPEA |
|---|
| **1.- Iraupen osoa**<br>**HEMEZORTZI (18) HILABETE.**<br><br>Kontratua exekutatzeko epearen barruan, adjudikaziodunak xehetasun-ingeniaritza egiteko, materialak biltzeko eta hornigaia ekoitzi eta muntatzeko behar duen denbora ez ezik, zerbitzuaren beharrengatik lan egiterik ez dagoen epe baliogabeak ere barne hartzen dira.<br>Horregatik, eskaintzan ezin da murriztu. |
| **2.- Epe partzialak**.<br>☐ BAI ☒ EZ |
| **3.- Luzapena**<br>☐ BAI ☒ EZ |
| **4.- Bermealdia**: Gutxienez, BI (2) URTEZ. |
| **5.- Kontratua exekutatzeko tokia**: Galindoko HUA, Sestaoko udal-mugartea. |
| **6.- Lanak zatika jaso daitezke** ☐ BAI ☒ EZ. |

| E.- BERMEAK | | |
|---|---|---|
| ☒Behin betiko bermea: % 5 | | Zenbatekoa: Adjudikazioa |
| ☐ Berme osagarria: | Zenbatekoa: | |

| F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA |
|---|
| Urteko negozio-bolumena, amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari |

| F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA |
|---|
| dagokionez, kontratuaren batez besteko urteko ordainketa halako bat izan beharko da gutxienez.<br>131.250,00 € (BEZa gabe). |

| G.- GAITASUN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA |
|---|
| Kontratuaren xedearen mota edo izaera bereko lanak egitea, honako dokumentazio hau aurkeztuta:<br><br>Kontratuaren xedearen antzekoak diren lanen zerrenda, azken 3 urteetan egindakoak. Baldintza hau bete beharko da:<br>Gutxieneko baldintza izango da exekuzio handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa batez besteko urteko kopuruaren % 70 edo gehiago izatea.<br>Kasu horretan, exekuzio handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa 91.875,00 € edo gehiago izan beharko da.<br>Egindako lanak frogatzeko, kontratatzaileak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagiriak aurkeztu beharko dira. Ziurtagiri horietan, lanen deskribapena, noiz egin ziren eta dagozkien zenbatekoak agertuko dira.<br><br>☒Enpresa sortu berrien kaudimen teknikoa:<br><br>Halako kasuetan, gaitasuna egiaztatzeko ez da esperientzia kontuan hartuko. Bai, gainerako eskakizunak. |

| ENPRESA-SAILKAPENA |
|---|
| **ENPRESA-SAILKAPENA** ☐ Bai, fakultatiboa ☒ Ez |

| H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK |
|---|
| 1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena. |
| 2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa. |
| 3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa. |

| BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA |
|---|
| Lizitatzaileek kontratua exekutatzeko proposamen tekniko bat aurkeztu beharko dute, adierazitako puntu guztiak barne, jarraian adieraziko den hurrenkeran.<br><br>1. Dokumentazio teknikoa.<br>• Hornigaiaren deskribapena. Ezaugarri teknikoak eta/edo zehaztapenak, neurriak eta abar.<br>• Egindako proben protokoloa eta horien ziurtagiria.<br>• Hornigaia entregatzeko epea.<br>2. Kontratua exekutatzeko esleitutako bitarteko materialak.<br>• Larrialdi-kasuetarako, ezohiko egoeretarako esleitutako bitartekoen deskribapena.<br>**3.** Kontratu honetarako aurreikusitako laneko arriskuen prebentzioko eta ingurumeneko kalitate-kontroleko sistemak. |
| Alderdi hauek egiaztatu beharko dira eta, hala egin ezean, lizitatzailea kanpo geratuko da:<br><br>• Produktuari exiji dakizkiokeen preskripzio tekniko guztiak zorrotz betetzea. Batik bat instalazioari eta konexioari dagozkion ezaugarri teknikoak eta/edo zehaztapenak. **Proposatutako ekipoak zuzenean trukagarria izan behar du erabilgarri dauden 4 posizioetako edozeinetan, instalazioan eta/edo proposatutako ekipoan obrarik edo aldaketarik egin beharrik gabe.**<br>• Eskainitako horniduren marka eta modelo zehatza ez zehaztea.<br>• Entrega-epea ez zehaztea.<br>• Proposatzen den ekipoaren neurriak behar beste ez deskribatzea.<br>• Eskainitako horniduren definizioetan antzekoa edo baliokidea adierazten duten esamoldeak sartzea. |

**AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK**

**Proposamen ekonomikoa**, lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatua, I. eranskin gisa bildutako ereduaren arabera idatzia ezinbestean, eskainitako prezioan zerga guztiak barne hartuta daudela, BEZa izan ezik.

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

•Eskaintza ekonomikoa.
•Eskainitako prezio unitarioak, I. ERANSKINAREN (prezio unitarioak) arabera.
•Neurketak eta eskainitako kontratuaren aurrekontua, II. ERANSKINAREN (neurketak eta aurrekontua) arabera.

**I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA**

1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzailearen profilean adierazitakoa
2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAren 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):
3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ
Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3?language=eu

**J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA**

☒Kontratazio-mahaia

Lehendakaria:
Ekaitz Mentxaka Corral.

Kideak:
Mikel Magunazelaia Pinaga.
Xabier Orue Moro.
Itziar Zarate Urrutia.
Gerardo Latorre Pedret.
Jose Manuel Pereda Renobales.

Idazkaria:
Gerardo Latorre Pedret.

**K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK**

**1.- Adjudikazio-irizpideak**:

Baloratu beharreko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarri izan behar duten irizpideak honako hauek dira:

**AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK 50 PUNTU**

Irizpide honetan 50 puntu emango dira gehienez.

Gehieneko puntuazioa emango zaio eskaintzarik ekonomikoenari, eta gainerako eskaintzen puntuazioa formula honetatik aterako da: eskaintza ekonomikorik txikienaren eta baloratzen den lizitatzailearen eskaintzaren arteko zatiduraren emaitza bider irizpideari aplikatu beharreko puntu guztiak egitea.

Hau da:

**(Et / El) x z**
Non:

## K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Et =eskaintza ekonomiko txikiena
El =baloratzen den lizitatzailearen eskaintza
z = irizpide honetan aplikatu beharreko gehieneko puntu kopurua.

**BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU**

1. Horniduraren dokumentazio teknikoa………………………………(40 PUNTU GEHIENEZ)
2. Kontratua exekutatzeko esleitutako bitarteko materialak. ……(5 PUNTU GEHIENEZ)
3. Kontrol-sistemak. ……………………………………………….(5 PUNTU GEHIENEZ)

**2.- Berdinketa hausteko irizpideak**:
Eskaintza baten baino gehiagoren artean berdinketa jazoz gero, behean adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira berdinketa ebazteko, adierazitako hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epea amaitzean lizitatzaileak duen egoera kontuan izanik:
a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.
b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.
d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

**3.- Eskaintza anormalki txikitzat jotzeko irizpideak**:
Eskaintza anormalki txikitzat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzaile bakarra egonik, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzaile egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzaile egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarra baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako baja.
- Lau lizitatzaile edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatuko da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkezten badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

**4.- Lizitatzaileari, hautespen-prozesuan jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea**:
Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

## L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

PTPAn zehaztutakoak.

## M.- ZEHAPEN ZEHATZAK

PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak.

| M.- ZEHAPEN ZEHATZAK |
|---|
| Kontratistak kontratua exekutatzeko finkatutako epearen barruan bete behar du kontratua, eta exekutatzeko ezarritako mugarri partzialak ere bete egin behar ditu.<br><br>Kontratuaren epea betetzen ez bada, 500,00 euroko penalizazioa aplikatuko da aurreikusitako datarekiko atzerapen-egun bakoitzeko.<br><br>Mugarri partzialen bat betetzen ez bada, 200 euroko penalizazioa aplikatuko da aurreikusitako datarekiko atzerapen-egun bakoitzeko.<br><br>Zigor guztiak indibidualizatuak, ez baztertzaileak eta metagarriak izango dira.<br><br>Zigorrak metatzeak kontratua hutsaltzea ekar dezake, SPKLn aurreikusitako baldintzen arabera. |

| N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA |
|---|
| Arrisku profesionalengatiko erantzukizuneko asegurua dagoelako egiaztagiria.<br>Kontratuaren xede diren lanak gauzatzean, adjudikazioduna sortzen diren kalteen erantzule bakarra, eta bere kabuz eta arriskupean konpondu beharko ditu.<br><br>Adjudikaziodunek aseguru-poliza bat eratu beharko dute, Preskripzio teknikoen agiri honen xede den Kontratua garatzen den bitartean pertsona, eraikin, instalazio edota ibilgailuetan (BBUPekoak edo hirugarrenenak) izandako kalteak estaltzeko. |

| Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA |
|---|
| Ez da aplikagarria. |

| O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA |
|---|
| ☒Hasieran aurkezteko betebeharra |

| P.- SUBROGAZIOA |
|---|
| Ez |

| Q.- ERREKURTSO BEREZIA |
|---|
| ☒ BAI<br>☐ EZ |

| BETEBEHARRAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN |
|---|
| |